

JOSE MANUEL RAMIREZ (UDALTZAIN BURUA)

“Hernanin behar baino multa gutxiago jartzen ditugu”

■ Arazorik haundiena trafikoarekin dute ■ Argi utzi du bizilagunen arteko etxe arazoak konpontzea ez dela beren lana ■ Zaborren araukin zorrotzago jokatu dute.



Udaltzain burua bere despatxuan, lanean.

■ KRONIKA: Zein da udaltzaingoaren zeregina?

JOSE MANUEL RAMIREZ: Zeregin asko ditugu: Batetik *Kaxkoko* trafikoa zaindu behar dugu; *kaxkooan* gertatzen diren bestelako istripuak ere gure zeregina dira. Bestetik udal ordenantzak bete arazi behar ditugu: tabernen ordutegiak, basuren legeak, obren lizentziak... Gure azken zeregina epaitegietatik datozen aginduak betetzea da.

■ Zerk ematen dizue lanik gehien?

Gero eta gehiago trafikoak. *Kaxko* zaharra ez da gehiegi aldatu, baina, kotxe kopurua bai. Auzoetan ere, Zikuñagan, Karabelen eta Olaetan esaterako aparkaleku baino kotxe gehiago dago. Gainera, jendeak gero eta salaketa gehiago jartzen ditu: espaloian trabatuta erori bada, baldosa bat gaizki jarria dagoelako...

■ Trafikoaren erremedioa?

Urbanizazio berrietan aparkaleku gehiago egin behar dira; Txantxilak erdiguneko arazoa zerbait konponduko baitu. Hortaz aparte, jendeak oinez gehiago ibili behar du; negozioa ez diogu *Mitxelini* bakarririk egin behar, oinetako saltzaileei ere egin behar diegu.

■ Sahiesbide berriak baretuko al du trafikoa?

Zinkonea baretu eta goiko trafikoa kargatuko du. Baretuko duena herri barruko trafikoa izango da.

■ Zenbait kejakten da multa asko jartzen dituzuela-eta.

Hernanin egiten diren infrakzioak kontutan hartuta, oso multa gutxi jartzen dugu. Arrazoiak oso nabarmenak direnean jartzen ditugu isunak: goizetan karga deskargan dauden kotxei, espaloian gainean edo paso zebatan daudenei,

autobusari pasadizoak oztapatzen dienei...

■ Hernani herri lasaia al da?

Herri guztiak bezala lasaitasun eta bihurrikariak ditu. Herri lasaigoa balitz, agian ez luke horrelako bizitarik edukiko.

■ Tabernen ordutegiak eta arazorik bai?

Azken aldia, ondo errespetzen dira. Zaratagatik ere gero eta keja gutxiago izaten dugu; baina, orain sagardotegi bolada dator eta...

■ Herria asko aldatzen al da, ba, sagardotegi boladan?

Martxora arte nahiko lasaia izaten da; baina, martxotik aurrera eromena da. Larunbatetan 67 autobus ere kontatu izan ditugu; San Joanetan baino jende gehiago, eta horietatik batzuk mozkortzera etortzen direnak; ez dakite zer den sagardotegiko giroa eta festa. □

JOSE MANUEL RAMIREZ

□ 1986 arte izan omen da hernaniarra; Lasarten jaioa eta bertan bizi dena.

□ 20 urte daramazki Hernanin udaltzain lanean; 3 hilabete egin orduko jarri zuten udaltzain buru.

□ Plantila hamazazpik osatzen dute.

‘GURE ESKOLAREN ALDE’ MANIFESTAZIOA

Hernanitik 3 autobus aterako dira Bilbora

Ume, guraso eta irakasle, 120 lagun inguru joango dira Langile ikastolatik, autobusez behintzat. Dobera eta AEKtik, berriz, 60. *Urumea* eta *Elizate* manifestaziora joateko deia egin dute. Autobusak Atsegindegitik aterako dira. *Langile*-koak: 15:30etan, eta besteak 16:30etan. □

■ HERRIKO XAKE TXAPELKETA

Abenduaren 19an bukatuko da lehen fasea

■ Nahasketen bat egon da eta, azkenean, antolatzaileek epea luzatu egin dute.

HERRIKO Xake Txapelketako lehen fasea luzatu egin da. Okerren bat medio, jendeak ez ditu partidu guztiak epe barruan bukatu. Horregatik, abenduaren 19rako jokatu beharko dira partidu guztiak.

Inor despistatu samar baldin badabil ere, partidak jokatzeko falta zaienen zerrenda jarriko dute Bodega, Aker, Txema eta Kitto tabernetan.

Hurrengo fasea, abenduaren 22an hasiko da. □

KARABEL: UME FESTA

Pintura eta idazlana gaur, eta krossa bihar

■ Umeak gaur goizetik arituko dira pintatzen ■ Krossa ume eta helduentzat bihar izango da, 10:30etatik aurrera.

Ttarlak dantza ekitaldia igandean Biterin

■ Eguerdiko 12:00etan da ■ Bukaeran saskia zozketatuko da.

Lizeagako auzo elkarteak zuzendaritza berria aukeratuko du

■ Gaur, larunbata, eguerdiko 12:00etan dute auzotarrek bilera, elkarteko lokalean.

Maite Iribarren

- ESTETIKA
- MASAIA
- KINESIOLOGIA



- Min zorrotz eta kronikoak.
- Lesio eta bizkarreko arazoak.
- Estres egoerak.
- Ermozio tentsioak.
- Beldurrak eta izuak.
- Antsietate arazoak
- Autoestima.
- Eskola eta kirol emaitzen hobekuntza.
- Ikasketarazoak
- Errendimendua hobetzeko teknikak
- Janariak sortutako alergiak
- Azterketen aurrean estresa.

Juan de Urbietan 7 - 6.C
Tel. 943 553 948
20120 HERNANI (Gipuzkoa)



Antziola-Motor Zerbitzu Ofiziala

- ▶ Kotxe berri eta aukerako salmenta
- ▶ Tailer mekanikoa, elektrizitatea eta elektronika
- ▶ Aseguruen gestioa
- ▶ Finantziaketak
- ▶ Kotxeak jaso eta leku berera itzultzen ditugu



Antziola auzoa 12 - HERNANI
Tel. 943 55 57 72 - Faxe 943 55 21 96

JAIONE Kongelatuak



20 pztako partaidetza oparitzen dut Eguberritako Loterian.

ELKANO KALEA, 1
Tel.: 943 55 07 87
20120 HERNANI



Skoda Fabia

FABIA bat 1.375.000 ptatik.* (8.263,99 euro*)

* Penintsula eta Balearretako gomendatutako prezioa. *Skoda Fabia Classic 1.4 60 CV, Gerraletan, gertu eskaintza berezi: 1 euro-166 386 pztak.

MENABI

Txingurri pasealekua, 26 Herrera auzoa DONOSTIA Tel. 943-40 42 4

'Berriak' elkarteak Santo Tomas azoka egingo du igandean

■ Egun osoan, eskulanak, liburuak, herriko presoek egindako lanak... izango dira
■ Azokan bertan, bi txerri zozketatuko dira eta gaztain erreak banatu.



Larraingo bixkiak gaztain erretzen. Igandean ere bero-beroak jateko moduan izango gara.

HERRIKO merkatari eta ostalari elkarteak 4garren Santo Tomas Azoka antolatu du. Goizeko hamarrek aldera hasiko da eta zortzietan bukatu. Aurten, Senideak elkarteak ere hantxe izango ditu presoek egindako eskulanak.

21EAN, 'TXORIMALO' LEHIAKETA

Santo Tomas eguna bera ere Hernanin izango da nola ospatua. Txistorra eta pintxoak ez ezik *Txorimalo* Lehiaketa ere izango da, Berriak eta Doberak antolatuta. Txorimaloak lasto eta belarrezkoa behar du eta txapelakikoa. Eusteko basea behar du barrenean. Ondoren, 3 saski zozketatuko dira. Ikusi nahi dituenak Kardaberaz 5ean dauzka. □

■ WATERPOLOA

Hernani Osasunaren kontra Iruñean

■ Gaur jokatu dute, eguerdiko 02:00etan.

WATERPOLO taldeak partidu erraza du gaur, teoriarik. Ibon Mendoza entrenatzaileak "partidu guztiak, ordea, jokatu egin behar dira" esan badigu ere.

Osasuna eta Eibar dira kategoriariako bi ekipo kaxkarrenak; Hernaniarrak, berriz, liderrak, jokatu dute partidu guztiak irabazita. Normalean gutxi jokatu

zen duten jokalaria ere eramango ditu gaur Ibonek Nafarroara. Martxa honetan lortuko dute helburua: Euskadiko 1go Mailara igotzea. □

ASTEBURUKO PARTIDUAK

LARUNBATA ■ FUTBOLA <i>Emakumezkoen Liga:</i> Aita Mari (Zumaian) 17:45etan Zumaia - Hernani <i>Gazteen liga nazionala:</i> Zubipen 16:30etan. Hernani - Real Union <i>Gazteen Ohorezko Liga</i> Gal-en (Irun) 19:30etan San Marcial - Hernani <i>Gazteen 2.Maila</i> Alluraldin (Andoain) 18:00etan. Euskalduna - Hernani <i>Kadeteen 2.Maila</i> Zubipen 11:00etan. Hernani - Eskolapioak ■ WATERPOLOA 2. Euskal Liga	Iruñean 02:00etan. Osasuna - Hernani ■ ERRUGBIA 2. Euskal Liga Bilbon 16:00etan. UPV Mungia - Hernani <i>Kadeteen Euskal Liga</i> Bilbon 16:00etan. Mungia - Hernani <i>Infantilak</i> Bidebietan 10:30etan. Hernani - Ordizia - Atletico-Eibar ■ BOLEIBOLA <i>Euskadiko liga</i> Kiroldegian 12:00etan UPV Hernani - CV Haro <i>Euskadiko liga</i> Hernani K.E. - UPV Bizkaia ■ PELOTA GIPUZKOAKO TXAPELKETA	Kiroldegian 16:15 <i>Paleta Goma (finalaurrekoa):</i> Grijalbo-Manzisor, R. Sociedad <i>Eskuz binaka:</i> Irazustabarrrena - Altuna, Behar zana <i>Eskuz Binaka</i> Otegi - San Sebastian, Arrasate IGANDEA ■ FUTBOLA 3. maila Gal-en (Irun) 17:00etan Real Union - Hernani <i>Gorengo maila</i> Zubipen 16:30etan. Hernani - Anaitasuna <i>Kadeteen Ohorezko Liga</i> Zubipen 11:00etan	Hernani - Iintxa <i>Haurren Ohorezko Liga</i> Garmendipen (Azpeitia) 10:30etan. Lagun Onak - Hernani ■ ERRUGBIA 1. Liga Nazionala Landaren 12:00etan. Hernani - Mungia <i>Jubenilen Euskal Liga</i> Landaren 10:30etan. Hernani - Irun ■ ESKUBALOIA 2. Nazionala: Oiain Aloñamendi - Hernani ■ PELOTA GIPUZKOAKO TXAPELKETA Donostian (Atano III). Finala 11:00etan Lasa - Martinez, Intxaurren
---	---	---	---

■ HITZ BITAN



Kamioia Zikuñagako bide beltzean, larri.

✓ ISTRIPUA ZIKUÑAGAN

Holandako kamioia bidetik aterata. Atzo eguerdiko hamaikak aldera, Holandako kamioi batek -Azerbaiango gizon bat txofer zuela- eskapa polita egin zuen. Fabrika aurrean jirazen hasi eta aurreko gurgilak erreka aldera aldegin zion. Azerbaiandarrak eta udaltzainek ere elkar ulertzeko arazoak eta, azkenean, kontsuladorea bera ere saltsan sartu eta gruak konpondu zuen dena.

✓ 'BATASUNA' PROZESUA

Erakunde berria nola egituratu eztabaidatuko da gaur. Aurreko hilean aurkeztu ziren Ezker Abertzalea sortzen ari den *Batasuna* proiektua bideratzeko bost ponentzia. Ponentziek bi ardatz zituzten: bata, erakunde berriaren egituraketa; eta bestea, hartu beharreko bide politikoa. Gaurko bileran erakunde nola egituratu eztabaidatuko da. Zein bide politiko hartuko duen, berriz, datorren hilean eztabaidatuko da. Otsailean proposamenak bozkatu egingo dira. Gaurko bilera goizeko 10:00etan da, Biteri kultur etxean. □

A G E N D A

- ❖ **ZINEA**
Road trip
Biterin, 19:30-22:30
- ❖ **BERTSOLARITZA**
Larrañaga eta Mañukorta
Elutxeta sagardotegian
Tel.: 943 55 69 81.
Barrikotea: 20:00etan.
- ❖ **MUSIKA**
Kaos Etiliko taldea
Goizuetan, 24:00etan.



Gregorio Larrañaga Mañukorta

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 557750

☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Gomez Nagusia, 15
☎ 943 554892
- ▶ Gauz: Acha-Orbea Lasarte. Hipodromo etorbidea, 6
☎ 943 363549

BADATOR OLENTZERO, BADATOR



Txirrita, 10 ☎ 943 552395 - HERNANI
ZATOZ TXIMELETARA ZURE OPARIAK AUKERATZERA

JANTZI DENDA



AMBOTO
GABONETAKO KANPAINA
%25eko beharpen bereziak
Nagusia 54 - Tel. 943 552 340 HERNANI

SEXOLOGIA



SUSTRAIA

HEZKUNTZA, TERAPIA ETA IKERKETA SEXOLOGIKOAREN SUSTAPENERAKO ELKARTEA
Hezkuntza - Sexu orientabidea - Sexu terapia - Masaje ikastaroak - Sexologia formakuntza eskola
Elizatzko 77-2. ☎ 943 55 09 17
20120 Hernani

IRAGARKI MERKEAK

■ Pisua salgai Etxeberrin.
Deitu 15:00etatik aurrera.

☎ 943-5524 06



ADARRA
ETXE TRESNAK S.A.
Txirrita 11
Tel. 943 55 04 27
20120 HERNANI (Gipuzkoa)



OIALUME BILTOKIA.

EUSKAL GIROA
Igande eta jai egun guztietan dantzaldia
19:30 etatik aurrera.

OIALUME AUZOA - 943 55 29 38

USURBILEN

TAKOLO PIRRI TX ETA PORROT X

"PARRANDAN"

OIARDO Kiroldegian
Abenduak 17, igandea
Arratsaldeko 4'30etan eta 6'30etan

SARRERAK: LETE LIBURUDENDAN
curretik: 650 pta. egun berean: 800 pta. Antolatzailea: ARGIAren Adiskideak